

## **8. LANABESA. BERDINTASUNAREN ALDEKO POSTONTZIA**

Irakasleak honako jarduera hau proposatuko die ikasleei:

Proposatzen dizuegu kutxa bat ipintzea postontzi gisa ikasgela bakoitzean, eta han uztea denbora batez (bi edo hiru astez).

Denbora horretan, animatzen zaituztegu sexismoa, estereotipoak edo genero-berdintasunaren aurkako ekintzak islatzen dituzten egoerak detektatzera ikastetxean nahiz hortik kanpo. Eskatuko dizuegu aintzat hartzea dagoeneko irakurria duzuen hezkidetzaren 8 zutabeak eta pentsa dezazuela zein egoeratan ez den bermatzen zortzi zutabe horietakoren bat.

Egoera bat identifikatzen duenean, idatzi orri batean eta sartu postontzian.

Nahi beste egoera seinala ditzakezue.

Ezarritako denbora igaro ondoren, egoera guztien kontaketa egingo duzue zeuen irakaslearen laguntzarekin, eta aukera izango duzue horretaz guztiaz gogoeta egiteko.